



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.06.16an EGINDAKO  
BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

MAITE ANTON LENO

OÑATI

**BOKALAK**

GARAZI LARREA ZUMELAGA  
UNAI ELKORO OIANGUREN  
AINHOA CABERO GARCIA  
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA  
ANDER GARAY ZABALETA  
GORKA ARTOLA ALBERDI  
AINHOA LETE ZABALETA  
CRISTINA MARQUINA IGARZA  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
EUGENIO OTSOA UGALDE  
IZARO ELORZA ARREGI  
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI

**ETORRI GABEAK**

MARIA UBARRETXENA CID  
ARITZ MURUA ACHA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ARRASATE  
ARRASATE  
ESKORIATZA

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrean ezarritakoarekin bat etorriz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituena, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egiten da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz, 2020ko ekainaren 16an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, eta goian aipaturikoak bertan direla.

**Gobernu Juntaren bilkura hasi aurretik, D2030 egitasmoaren “Debagoiena Talent House” prototipoaren aurkezpena egin da.**

### **1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko maiatzaren 26an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

### **2.- ZERBITZU OROKORRAK**

#### **2.1.- 2019ko Kontu Orokorraren onespena**

Dagokion prozedura izapidetu ondoren, kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2019ko ekitaldi ekonomikoko Kontu Orokorrari onespena ematea.

#### **2.2.- 2020/05 kreditu aldaketaren onespena**

2020ko Aurrekontuko kredituak gehitzeko izapidetutako 2020/05 kreditu aldaketa espedientea ikusirik, kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kreditu aldaketa onartzea, ondorengo xehetasunaren arabera:

### **KREDITU GEHIGARRIAK**

<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Gehikuntzak</u>
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	12.100,00
6	INBERTSIO ERREALAK	48.400,00
<b><u>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</u></b>		<b><u>60.500,00</u></b>



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	60.500,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>60.500,00</b>

#### **2.3.- Foru Kontratazio Zentrala; ordenagailu pertsonalen espedienteari atxikitzea**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegokion hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, ordenagailu pertsonalez hornitzeko kontratazio espediente irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere hornidura hau beharko duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Ordenagailu pertsonalez hornitzeko Gipuzkoako Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.
3. Baimena ematea lehendakariari Mankomunitate honi dagokion kontratu eratorria esleitzeko.

### **3.- INGURUMENA**

#### **3.1.- Hondakin bilketa zerbitzua emateko kontratua; Oñatiko atez-ateko ontziak eta esekitokiak desinfektatzeko zerbitzuari amaiera ematea**

COVID19-ak eragindako alarma egoeraren ondorioz, Debagoieneko etxeko hondakinen bilketa egiten duen UTE DEBAGOIENA 2017 kontratistak euren lan-arriskuen prebentziorako IPSUM enpresak egindako txosten batean oinarrituz, atez-ateko bilketa egiten den herrietan, hau da Antzuola eta Oñatin, ezinbestean ontzien bilketa egin aurretik ontzi guztiak banan-bana garbitu behar zirela jakinarazi zion Mankomunitateari.

Antzuolari zegokionez, alarma egoera honetan organikaren eta errefusaren edukiontzien sarrailak kendu zirenez eta orokorrean ikuskaritza lanak murriztu zirenez, Antzuolako ontzien banakako desinfekzio lanak (eta baita orokorrean esekitoki osoarenak ere) E04 Kalitate zerbitzuak (ikuskaritzak) egin zituen.



## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

Oñatiko ontzien desinfekzioa burutzeko ordea, gaueko Oñatiko atez-ateko zerbitzuaren aurretik egitea ezinbestekoa zenez eta UTEak Mankomunitateari eskaintzen zizkion zerbitzuen artean ez zegoenez zerbitzu hau ematera egokitu zitekeen zerbitzurik, UTE DEBAGOIENAK, alarma egoerak irauteen zuen bitartean, Oñatiko ontziak desinfektatzeko zerbitzu gehigarri bat ematea beharrezkoa zen.

Kontuan hartuz COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko premiazko neurriak hartzen zituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuak, bera 16. artikuluan, Estatuko Administrazio Orokorreko organoei zegokienez, jasotzen zuela COVID-19ri aurre egiteko edozein neurri zuzen edo zeharkako hartzeak berehala jarduteko beharra justifikatuko zuela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, eta Estatuko Administrazio Orokorrek edo haren organismo publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek pertsonak babestearen ondoriozko premiei erantzuteko egin behar zituzten kontratu guztiei eta Ministroen Kontseiluak COVID-19ri aurre egiteko hartutako beste neurri batzuei larrialdiko izapidetzea aplikatuko zitzaizela.

Horregatik, bai hondakin bilketako langileak, bai herritarrak birusaren kutsaduratik babesteko helburuarekin, 2020ko apirilaren 6ko Mankomunitateko lehendakariaren ebazpen bitartez, erabaki zen etxeko hondakinen bilketa zerbitzua emateko DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin daukagun kontratua aldatzea, martxoaren 30etik aurrera, Oñatiko atez-ateko ontziak eta esekitokiak desinfektatzeko zerbitzua egiteko.

Orain, kontuan hartuta egoera nabarmen hobetu delarik alarma egoera bukatzeaz dagoela, Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Datorren ekainaren 21ean alarma egoeran jarritako Oñatiko atez-ateko ontziak eta esekitokiak desinfektatzeko zerbitzu gehigarriari amaiera ematea.

### **3.2.- Olio edukiontziz hornitzeko kontratazio espedientea; gorako errekurtsioa ezestea, huts deklaratzeko eta lizitazio berria ateratzea**

2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Mankomunitateko Gobernu Juntak erabaki zuen erabilitako sukalde olio biltzeko edukiontziz hornitzeko kontratazio espedientea, gastua eta baldintza agiriak onartzea, zegokion esleitze-prozedura irekiz.

Horretarako emandako epean ondorengo bi proposamenak aurkeztu dira:

- GESTIONES TEXTILES GUTIERREZ, S.L.
- LOGICFUN MH, S.L.

Bi lizitatuak hauek aurkeztutako dokumentazio teknikoa eta edukiontzia laginak aztertu ondoren Ingurumen Zerbitzuko arduradunak egindako txosten teknikoa ikusirik, Kontratazio Mahaiak, 2020ko ekainaren 3an egindako bilkuran, bi proposamenak baztertzeko erabaki zuen, honako arrazoi hauek direla eta:

**“GESTIONES TEXTILES GUTIERREZ, S.L.**



## DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

- Por no contar con “bandeja giratoria, rampa de depósito u otro elemento que impida o suponga una gran dificultad para el acceso a través de la boca a los envases con aceite depositados en el interior del contenedor, al objeto de evitar en lo posible actos vandálicos o la sustracción del aceite depositado”, elemento exigido en la cláusula 3.1.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas, de tal forma que resulta relativamente sencillo acceder a través de la boca a los envases depositados en el interior del contenedor.
- Por no contar con “una bandeja inferior estanca para la recogida de posibles derrames de aceite, extraíble para su vaciado y limpieza”, elemento exigido en la cláusula 3.1.6 del Pliego de Prescripciones Técnicas. El contenedor presentado cuenta con una rejilla fija, con sus bordes sellados, y un material absorbente bajo la misma. No se especifica cómo se debe realizar la limpieza de este elemento, pero es previsible que cuando se sature su capacidad de absorción (o cuando se presenten olores) se deba cortar el sellado, apartar la rejilla, extraer el material absorbente, sustituirlo por material limpio, colocar la rejilla y sellar de nuevo con silicona u otro sellante. No es esto lo que se solicita en el pliego, sino una bandeja estanca y extraíble, para que pueda ser fácilmente retirada, vaciada y limpiada.

### LOGICFUN MH, S.L.

- Por no cumplir con la siguiente condición exigida en la cláusula 3.1.6 del Pliego de Prescripciones Técnicas: “El contenedor debe estar construido de manera que por una rotura del envase del usuario o por cualquier otra causa, los derrames de aceite que ocurran en el interior del contenedor queden retenidos y no alcancen la vía pública”. El contenedor presentado está abierto en su parte inferior. Por otro lado, la bandeja extraíble deja holguras de varios centímetros que dejan pasar sin ninguna dificultad posibles derrames de aceite hacia la vía pública. El contenedor, por tanto, no cumple con esta condición.”

Kontratazio Mahaiaren baztertze erabakiaren jakinarazpena jaso ondoren, LOGICFUN MH, S.L. enpresak gorako errekurtsio bat aurkeztu du eta Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak errekurtsio honi buruzko ondorengo txostena egin du:

1. ***“Alega la empresa que el objetivo de su diseño es que el agua de lluvia que pueda entrar en el contenedor se desagüe a la vía pública por su base, sin que se retenga en el interior, dando por hecho que esta agua de lluvia discurrirá por las paredes interiores del contenedor sin contaminarse con aceite.*”**

*El contenedor propuesto no presenta ningún elemento ni sistema para la conducción de estas aguas limpias de manera separada, sin que se contaminen de aceite. Ni en el escrito del recurso ni en la documentación técnica aportada por la empresa en el sobre “B” se justifica cómo se pretende conseguir tal cosa. Por otro lado, dado que cuenta con una rampa de depósito en la boca de acceso lo más probable es que una parte del agua que entre por la boca no discurra por las paredes interiores.*

*No hay motivos por tanto para asumir que el agua de lluvia que entre al contenedor discurra por las paredes interiores del mismo sin contaminarse con*



## DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

aceite. De hecho, lo más probable es que sí se mezcle con aceite de múltiples formas, ya que todos los elementos interiores del contenedor, incluidas las paredes, pueden estar en contacto con aceite si se producen derrames.

Obviamente, las holguras de la bandeja respecto a las paredes del contenedor, y el hecho de que el contenedor esté totalmente abierto en su base, dejarán salir tanto el agua de lluvia como el aceite o el agua contaminada con aceite, por lo que el diseño propuesto resulta muy deficiente para retener los derrames de aceite que se puedan producir en el interior del contenedor.

- 2. Se describe una posible solución técnica para solucionar el incumplimiento, mediante una junta de goma en el perímetro de la bandeja, adjuntando fotografía.**

No es ésta la solución presentada en esta licitación, por lo que no procede valorarla en este momento. Sería valorada, en su caso, en la fase que corresponda de un nuevo procedimiento de licitación.

- 3. Alega la empresa que el contenedor no puede ser estanco porque se pueden producir fugas por las juntas de la puerta, que el elemento verdaderamente estanco es el contenedor interior, y que el contenedor es un elemento de protección y seguridad.**

La vía principal y natural de fuga de posibles derrames de aceite hacia la vía pública, por la simple acción de la gravedad, es el fondo del contenedor, que en el caso del contenedor propuesto por la empresa está muy desprotegido para evitar esta posibilidad.

Por otro lado, se necesitaría una presión horizontal para que el aceite salga por las juntas de la puerta, para lo cual es necesario que el nivel de aceite retenido en el fondo del contenedor alcance al menos la altura del borde inferior de la puerta. Esto es imposible, ya que previamente el aceite ya se habría fugado por el fondo.

Por otro lado, el contenedor interior es efectivamente estanco, pero ello no impide que puedan existir derrames de aceite con riesgo de alcanzar la vía pública. Existen holguras entre el contenedor interior y las paredes y resto de elementos del contenedor exterior, necesarias por otra parte, por las que puede derramarse aceite sin pasar necesariamente al contenedor interior. Además, este contenedor interior es un elemento que sufre el lógico desgaste con el uso y puede presentar roturas o fugas con el tiempo. Debe tenerse en cuenta que el envase del usuario puede romperse al caer al fondo del contenedor, sobre todo si es de vidrio. La casuística de derrames puede ser muy amplia, dado que se trata de un servicio público de uso general, situado en la vía pública y con frecuentes trabajos de retirada: mal uso del contenedor por parte del usuario (vertido directo del aceite), rotura o fugas del envase del usuario durante la operación de depósito, actos vandálicos, accidentes de tráfico, derrames durante los trabajos de recogida, entrada de agua de lluvia que se contamina con aceite, etc.

- 4. Alega la empresa que la cláusula 3.1.6. "Habla de que lo que tiene que ser estanco y extraíble es la bandeja y la nuestra lo es", y que la bandeja**



## DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

**estanca recogería las pérdidas del contenedor interior en caso de rotura en su base, considerando que con ello cumple con lo establecido en la citada cláusula.**

*Efectivamente, la bandeja presentada es extraíble y parece ser estanca, a falta de más pruebas. En cualquier caso, no es éste el motivo de exclusión, sino el incumplimiento de la parte de la cláusula 3.1.6. que establece que: “El contenedor debe estar construido de manera que por una rotura del envase del usuario o por cualquier otra causa, los derrames de aceite que ocurran en el interior del contenedor queden retenidos y no alcancen la vía pública”.*

*La alegación tan solo recoge una posible vía de derrame interno de las múltiples posibles. Como se ha descrito en el punto anterior (alegación nº 3), se pueden producir derrames por muchas otras causas y vías, sin pasar necesariamente por la rotura de la base del contenedor interior. Por otro lado, no se tiene en cuenta que la propia bandeja de retención puede desbordarse o sufrir deterioro o fugas. En estos casos, el contenedor propuesto no es capaz de retener los derrames de aceite, que inevitablemente alcanzarían la vía pública.*

*Es importante subrayar la importancia de evitar los derrames de aceite a la vía pública. Un derrame de aceite, o de agua con aceite, desde el contenedor a la vía pública puede causar accidentes graves a los viandantes o accidentes de tráfico. Téngase en cuenta que con la orografía de las calles en los pueblos de la comarca de Debagoiena, con numerosas y empinadas pendientes, un derrame de aceite a la vía pública puede extenderse rápidamente a las aceras o a las calzadas. Por estos motivos, y por motivos obvios de limpieza e higiene, de máximo aprovechamiento del aceite depositado por los ciudadanos, e incluso de imagen, los contenedores a adquirir deben contar con el máximo grado de seguridad frente a derrames indeseados.*

*Por las razones descritas en este informe, se concluye que las alegaciones formuladas por la empresa LOGIC FUN MH, S.L. deberían ser rechazadas.”*

Txosten honetan jasotako arrazoiak ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. LOGICFUN MH, S.L. enpresak aurkeztutako gorako errekurtsioa ezestea.
2. Esleitze prozedura hau huts deklaratzeari.
3. Esleitze prozedura berri bat irekitzea baldintza berdinekin.

#### **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

##### **4.1.- Mankomunitatearen Eskolatzeko osagarriko programa antolatzea, kudeatzea eta garatzeko ARIZMENDI KOOP. ELKARTEAREKIN sinatutako kontratua luzatzea**

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2019ko uztailaren 30ean sinatu zuen Mankomunitateak ARIZMENDI KOOP. Elkartearekin Eskolatzeko Osagarriko Programa antolatzea, kudeatzea eta garatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

jasotzen da bere iraupena urtebetekoa izango dela, 2019ko irailaren 1etik aurrera, 2019/2020 ikasturterako, eta beste urtebetez luzatzeko aukera izango duela, 2020/2021 ikasturterako.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Garapen Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2021eko abuztuaren 31 arte, 2020/2021 ikasturterako; beti ere, ikasle taldea osatuz gero.

### 5.- LEHENDAKARITZA

#### 5.1.- D2030 egitasmoa sustatzeko eragileen arteko lankidetzaren hitzarmena

Gobernu Juntaren aurreko bilkura aurretik aurkeztutako “D2030 Egitasmoa” sustatzeko eragileen arteko lankidetzaren hitzarmenaren zirriborroa ikusirik eta egitasmo honen helburuaren interesa dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- D2030 egitasmoa sustatzeko Debagoieneko beste hainbat erakunde publiko eta pribatuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin proposatutako lankidetzaren hitzarmena sinatzea ondorengo klausulen arabera:

**“Lehena/ HITZARMEN HONEN ESPARRUA ETA HELBURUA**

1.1. *Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek “D2030: Garapen iraunkorrerako sarea” izeneko ekimena sustatzeko konpromisoa hartzen dute.*

1.2. *D2030-en gobernantza ereduaren ezaugarri nagusiak kolektiboa eta irekia izatea dira, lidergotza partekatuetan oinarritua. Ondorioz, hemen deskribatuko den eredu, hastapen une honetan aurrera egiteko proposamena da; aspirazioa berriz, lankidetzaren sarearen parte diren eta izango diren eragile anitzen artean definitzen, esperimentatzen eta egokitzen joatea da, oinarrizko bi ezaugarri horiek babestuz.*

1.3. *D2030 eskualdeko eragile anitzen sarea izango denez, gobernantza ereduaren berezitasun hori bermatuko da, administrazio publikoa, kooperatibak, sektore pribatua, herrigintza antolatua eta herritarrak gobernantzan inplikatur.*

1.4. *Gobernu Batzordea izango da D2030-en organo instituzional gorena, eta bertan egongo dira ordezkatuak ekimen honen sustatzaileak. Hauek dira, gaur gaurkoz, Gobernu Batzordearen funtzioak eta osaera:*

*Funtzioak:*

- *D2030 egitasmoaren bisio, misio eta norabide estrategikoa onartu, aberastu eta zaintzea.*
- *Urteko plangintza eta aurrekontua onartzea.*
- *Zuzendaritza Teknikoaren osaera eta funtzioak onartzea.*
- *Nazioarteko aliantza estrategiaren onarpena eta jarraipena egitea.*





## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Egitasmoaren jarraipena egitea eta honen inguruko erabaki garrantzitsuak hartzea.
- Egitasmoaren jarduna nahiz inpaktua ebaluatu eta komunikatzea.

Osaketa:

- Debagoieneko Mankomunitatea
- Arrasateko Udala
- Bergarako Udala
- Oñatiko udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Mondragon Unibertsitatea, Koop. E.
- Garaia Berrikuntza Gunea, Koop. E.
- Fagor, Koop. E.
- Ulma Taldea, Koop. E.
- Mondragon, Koop. E.
- Goiena Komunikazio Taldea, Koop. E.
- Gizabidea Fundazioa
- Agirre Lehendakaria Fundazioa

### **Bigarrena/ SUSTATZAILEEK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK**

2.1 Publikoki egitasmoaren sustatzaile moduan azaltzea, eta baliabide komunikatibo ezberdinetan erakundearen logoa erabiltzea baimentzea.

2.2. Gobernu Batzordean aktiboki parte hartu, gainontzeko eragileekin lankidetzan jardun eta adostutako egitasmoa eta lan ildoak bultzatzea.

2.3 Norbere erakunde barruan D2030 ezagutzera eman, zabaldu eta langileak bertan parte hartu dezaten ahalbidetu eta sustatzea.

2.4 Norbere erakundearen estrategia eta proiektuak D2030kin konektatzea.

2.5 Beste eragile batzuk egitasmora batzeko aktiboki inplikatzeko, konexioak sortuz eta egitasmoaren garapenean lagunduz.

2.6 D2030en markoan garatuko diren dinamika ezberdinetan parte hartzea, eta norbere erakundearen parte hartzea eskatzen duten proiektuen garapenean aktiboki inplikatzeko.

2.7 Erakunde bakoitzaren ezaugarri eta ahalmenen arabera, D2030 egitasmoaren prozesu nahiz portfolioaren finantzaziorako ekarpen ekonomikoak egitea.

### **Hirugarrena/ EZAGUTZAREN JABETZA KOLEKTIBOA, LANKIDETZAREN ETA LEHIAREN ARTEKO OREKAZ**

3.1. D2030-en sortuz joango den ezagutzaren izaera irekia eta kolektiboa da.

3.2. D2030-en prozesu anitzetan sortzen den ezagutza egitasmoan parte hartze duten eragile guztiena, kolektiboa, izango da; ez da eredu klasikoagotan



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

bezala, alde bakarrarena izango, finantzatzailearena adibidez. Beraz, eragile bakoitzak D2030-ra egingo duen ekarpena jabetza kolektiboan uzten du eta aldean ekarpenen baturatik sortuko den ezagutza kolektiboa izango da. Eta horrela adieraziko da prozesuaren osotasunari edo edozein azpiprozesuri buruz sortutako material edo argitalpenetan, egitasmoan inplikaturiko eragile batek edo gehiagok sortutakoa bada ere.

3.3. Era berean, hitzarmen honetako edozein eragilek ezagutza hori bere aldetik ustiatzeko aukera izango du, jardunbide horren muga honakoa da: ezagutza kolektibo horrekin egingo dena ezingo dela inolaz ere esparru kolaboratibo honen aurka egin.

### **Laugarrena/ D2030-en SORTUTAKO EZAGUTZAREN ERABILERAZ**

4.1. D2030-en prozesu anitzetan sortutako ezagutza eta lana erabiltzeko baldintzen xedapena "D2030 egitasmoan sortutako ezagutza eta materialen erabilera eta hedapenerako irizpideak" dokumentuan zehaztuko dela (hitzarmen hau sinatzeko unean garapen fasean dagoena). Edozein kasutan, ezinbestekoa izango dela D2030-en testuinguruan sortutako ezagutzaren erabiltzen den bakoitzean egiletza aitortzea, 4.1. puntu honetan aipatzen den dokumentuan azalduko diren irizpideei jarraituta, eta irizpide horiek guztiz zehaztu bitartean Zuzendaritza Teknikoak ezarritakoei jarraituz.

### **Bosgarrena/ D2030 MARKA**

5.1. Markaren aplikazio marko orokorra "Markarenerabilera D2030 egitasmoan" dokumentuan (hitzarmen hau sinatzeko unean garapen fasean dagoena) xedatuko da.

### **Seigarrena/ LAN HIZKUNTZA**

6.1. PLATAFORMAko lan hizkuntza euskara izango da. Kanpo komunikazio eta harremanetan "Hizkuntza irizpideak D2030 egitasmoan" dokumentuan (hitzarmen hau sinatzeko unean garapen fasean dagoena) adostutako irizpideak erabiliko dira, beti ere euskarari garrantzia eta lehentasuna emanaz.

### **Zazpigarrena/ GENERO BERDINTASUNA**

7.1. PLATAFORMAko ekintza ezberdinetan genero oreka zainduko da eta genero berdintasunerako irizpideak aplikatuko dira.

7.2. Genero berdintasunaren aplikazio marko orokorra "Genero Berdintasuna bermatzeko irizpideak D2030 egitasmoan" dokumentuan (hitzarmen hau sinatzeko unean garapen fasean dagoena) xedatuko da.

### **Zortzigarrena/ HITZARMENAREN JARRAIPENA**

8.1. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, urtean behin baloratuko dituztela aldean artean hitzartutakoaren garapena eta emaitzak Gobernu Batzordean, eta behar izanez gero, hitzarmeneko klausuletan adostutako terminoak aldatzeko akordioa har dezaketela.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### ***Bederatzigarrena / HITZARMENAREN INDARRALDIA***

9.1. *Hitzarmen hau 2020ko uztailaren 22an jarriko da indarrean eta iraupen mugagabea izango du.*

9.2 *Hitzarmen hau sinatzen duten eragileak libre dira edozein momentutan Gobernu Batzordea utzi eta hitzarmenetik irteteko, beti ere 3 hilabetetako aurrerapenarekin Gobernu Batzordean jakinarazita."*

Gorka Artolak, Bergarako alkateak, esan du proiektu honetan, kooperatibez gain, beste enpresa mota batzuek ere parte hartzea komeni dela.

### **5.2.- Lehendakaritzaren ebazpenak**

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

**20/33.-** 20/13 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA BI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA BOST ZENTIMO (202.547,05 €).

**20/34.- Lehenengoa.**- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteak, kreditu gaikuntzaren modalitatekoak, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

### **GASTUAK**

<b>Kap</b>	<b>Izena</b>	<b>Euroak</b>
.		
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	98.214,00
<b>GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>		<b>98.214,00</b>

### **SARRERAK**

<b>Kap.</b>	<b>Izena</b>	<b>Euroak</b>
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	98.214,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>98.214,00</b>

**Bigarrena.**- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**20/35.-** 1.- Debagoieneko Mankomunitatearen erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzeko espedientearen 1 lotea, hau da, ondarezko erantzukizun zibileko aseguru, MAPFRE ESPAÑA, S.A. COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A enpresari esleitzea ondorengo prezioan: urteko 5.700 €.

Ezbehar bakoitzeko 300 €-ko frankizia ezartzen da.

Honako indemnizazio muga hauek finkatzen dira:

- Ezbeharragatiko gutxieneko indemnizazio muga: 680.000 €.
- Gutxieneko indemnizazio muga, urteko: 680.000 €.
- Muga, biktimako: 340.000 €.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Belén Txintxurreta Iparragirre, Mankomunitateko behin behineko idazkaria, izendatzea kontratu honen arduradun.

**20/36.-** 1.- Ekainaren 1etik aurrera, Nafarroa Etorbideko 17an eta 19an dauden Mankomunitatearen lokal eta instalazioak egunero garbitzea, astelehenetik ostiralera. (astean 25 ordu).

2.- Hondakin bilketako langileek erabiltzen dituzten Meatzerrekako ibilgailuen garajeko instalazioak berriz, egunero garbitzen jarraitzea, astelehenetik ostiralera (astean 11,25 ordu).

**20/37.-** ION AGIRRE langileari eskatutako baimena ematea, 2020ko ekainaren 15etik uztailaren 31ra.

**20/38.-** 1.- Debagoieneko Mankomunitatearen 2020ko Enplegu Publikoaren ondorengo Eskaintza onartzea:

### **2020KO ENPLEGU PUBLIKOKO ESKAINTZA**

**A) Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa (Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren Legea)**

#### **Lan kontratudun langileak**

Talde asimilatua: \* (E).

Bete gabe: 3.

Deitura: Txofer-zamaketaria.

Hautaketa: Lehiaketa-oposizioa.

Hizkuntza eskakizuna: 1.

Derrigortasun data: 2018.01.23.

**B) Birjartze-tasa (Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren Legea)**



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### Funtzionarioak

Taldea: A1.

Klasifikazioa: Administrazio Bereziko Eskala. Zerbitzu Bereziako Azpieskala.

Bete gabe: 1

Deitura: Ingurumeneko zerbitzu arduraduna.

Hautaketa: Lehiaketa-oposizio irekia.

Hizkuntza eskakizuna: 4

Derrigortasun data: 2000.01.01.

### Lan kontratudun langileak

Talde asimilatua: \* (E).

Bete gabe: 1.

Deitura: Txofer-zamaketaria.

Hautaketa: Lehiaketa-oposizioa.

Hizkuntza eskakizuna: 1.

Derrigortasun data: 2018.01.23.

2.- Enplegurako Eskaintza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta laburpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 24. artikuluan jasotakoa betez.

### **6.- GALDE-ERREGUAK**

Maitek, lehendakariak, Gobernu Juntaren hurrengo bilkura aurrez aurrekoa egitea proposatu du. Denak ados azaldu dira.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

**LEHENDAKARIA**

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**